

# **EAJ jarrera Andra Mariko garapen urbanistikoa dela-eta (II)**

**Eragile sozialekin izandako elkarrizketen eta  
EAJk egindako proposamenari alderdi  
politikoek emandako erantzunaren balorazioa.**

2007/03/29

Azken martxoaren 2an EAJ alderdiak jendaurrean azaldu zuen udalerrriaren garapen urbanístikoz duen proposamena eta momentu egokia da aurkezpena egin zenetik sortu zen egoeraz analisi bat egiteko, soseguz.

Aurkezpenean hartu genuen lehenengo konpromisoa hauxe izan zen: arazo honekin harreman zuzena duten eragile sozial guztiekin elkartzea.

Horrela, gure hitza betetzearren, hauekin elkartu ginen:

- Martxoaren 9an, Gure Lurra Andra Mariko auzokide elkartearekin.
- Martxoaren 15ean, Andra Mariko auzokide elkartearekin.
- Eta martxoaren 19an, Sendoa elkartearekin.

Beraz, amaitu egin dugu elkarteekin lehenengo harreman eta eztabaidak garatzeko fasea. Lehenengoa diot, gure asmoa guztiekiko komunikazio bideari eustea baita, elkarte guztiei jakinarazi genien bezala. Eta ez bakarrik hauteskunderen aurreko garaian, baizik eta geroago ere, behin Udalak udal hirigintza-araudia LPPk eta Lurzoruaren Legeak ezarritakoaren arabera birmoldatze lanari aurre egiten dionean. Are gehiago, ondorio horretarako eratuko den Planeamendurako aholku kontseiluan elkarteek izan beharko duten parte hartzetik haratago doan komunikazio bideari eutsi nahi diogu.

Bilera hauetaz egin dugun balantzea erabat positiboa da, arrazoi hauengatik:

1.a Jakina da elkarteek gure proposamenaren edukiari buruzko balorazio ezberdinak egingo dituztela, horixe baitagokie, egoki baderitzote behintzat. Balorazio horiek direnak direla, errespetatu egingo ditugu eta ez diete atera ditugun ondorio hauei kalterik egiten:

a) Hirigintza araudia LPPk eta Lurzoruaren Legeak ezarritakoaren arabera birmoldatze lanaren aurrean, denen asmoa da lan positiboa egitea, bakoitzak bere ikuspuntutik bada ere.

b) Horretarako, denak daude prest elkarrizketa eta komunikazio bideei eusteko.

c) Edozelan ere, beren jarreraren alde egiten jarraituko dute eta jokabide horri eusteko konpromisoa hartu dute.

2.a Andra Mariko garapen urbanistikoaz EAJk duen proposamenaren jatorria eta mamia azaltzeko aukera izan dugu, zuzenean guk geuk egiteko aukera izan ere.

3.a Gure solaskideekin geure iritziak eta jarrerak alderatzeko aukera izan dugu, eta hizketa giro aberasgarrian, gainera.

Beraz, lehenengo elkarrizketak egindakoa, hasierako geure konpromisoa berretsi egin dugu, sendo, eta konpromiso horren barruan oinarritzko elementu bat hartuko dugu kontuan, bi hauen artean beharrezkoa den oreka baten alde egiteko, alegia: Andra Mariko auzokideen interesak eta eskubideak alde batetik, eta bestetik, udalerriko etxebizitza beharrak dakarren interes orokorra. Eta ez bakarrik planteamendu berria lantzeko prozesuan, baizik eta ondorengo exekuzio prozesuan ere bai.

Oreka hori lor daitekeelako uste betea dugu, are gehiago, jakin badakigu hori lortzeko eta egiteko irtenbide tekniko eta juridikoak daudela.

Hortaz, planteamendu berria lantzen hasten garenean gure konpromisoaren barruan dago elementu hori aurre-aurrean kokatzea, eta beste hau ere bai: garapenean zehar auzokideek prozesua guztia aztertu eta ezagutu ahal izateko bideak eratu eta abian jartzea.

Hori guztia, hauteskunde prozesuaren aurretik eta ondoren guztiekin izan nahi dugun komunikazio zuzenaren kalterik gabe

\*\*\*\* \* \* \* \* \*

Eragile sozialekiko harremanen lehenengo fase hau alde batera utzita, lehenengo hausnarketa bat ere egin nahi dugu, pasa den martxoaren 2an EAJk Andra Mariz aurkeztu zuen proposamenari beste indar politikoek emandako erantzunez.

Alde horretatik, azpimarratu behar dugu erantzun guztiak ez direla berdinak izan, jakina; batzuk positiboak ziren, beste batzuek helburua suntsigarria zuten, beste batzuk iragarri ezinak ziren eta besteak erraz iragar zitezkeen:

-Azken horien artean PP alderdiarena dago: euren ordezkaria den Arrue andreak EAJ alderdiaren hautagaiari muzin egin eta gutxiespen hitzak bota baino ez zuen egin, eta horixe izan zen euren argudio nagusia.

Horixe ere bada euren politikagintzaren oinarria eta Andra Marirako proiekturik ez daukatenean inpotentzia erakutsi baino ez du egiten. Euren proposamen bakarra da biharko ezohiko osoko bilkurarako planteatzen duena: Bilbo Metropolitarraren Lurralde Plan Partzialaren aurrean, intsumisioa egitea.

Harrigarria da, benetan, Getxon EAJri gobernu aukera bezala aurrea hartu nahi dion alderdi batek auzokideei proposamenik ez eskaintzea, zeri buruz eta udalerriko etorkizunerako momentu honetan dagoen proiekturik inportanteenari buruz, baina horrela da.

-EB-Berdeak alderdi barruko urduritasuna deigarria iruditu zaigu, euren bozeramaileen arteko kontraesan itzelak, eurekiko gutxiespenak, argudio demagogikoen erabilera etab.

Dena dela, urduritasuna alde batera utzita, egia da Madrazo jaunak gure proposamenari emandako azken erantzunean 8368 etxebizitza horiek murriztea dagoela, eta hori guretzat oso esanguratsua da.

-Pozik ohartu gara ezberdinak garenon artean akordiorako eta topaketarako espazio interesgarri bat sortu dela gure proposamena egin genuenetik, eta horrela, PSE eta Aralar alderdiek, adibidez, EAJk Andra Marirako egin duen proposameneko oinarritik hurbil dauden jarrerak eta proposamenak adierazi dituzte, zuzen edo zeharka bada ere, eta horri garrantzitsu deritzogu.

-Edozein kasutan ere, gure proposamenari emandako erantzun eskerga ikusita, eta ia alderdi guztien erantzunek izan duten indarra kontuan hartuta, argi dago guretzat bermatu egin dela EAJ alderdiak arazo hau konpontzeko hiritarrek aspalditik eskatzen zioten gidaritza bereganatu egin duela.

Horixe antzeman dugu kalean eta geure jendearengan.

Beraz, gure ustez Getxorentzat onena den proposamenaren alde jarraituko dugu lanean. Proposamen horren funtsezko puntuen artean hauexek daudela gogorarazi nahi dugu:

- LPPk eta Lurzoruare Legeak ezarritako marko juridikoa onartu eta errespetu egiten dugu, eta horrek ez dakar ezinbestean Andra Marin 8368 etxebizitza egitea, askoz gutxiago baizik.
- Udalerrian egingo den babespen publikoko etxebizitza eskaintzak bertako behar errealei erantzun behar die.
- Auzoaren diseinua egokia izan behar da, bizitzeko atsegina, orain arte Getxon garatu denaren oreka apurtuko ez duena. Batez bestekoa ez da behekoa +3/4 baino gehiagokoa izango Ibarbengoako geltokitik haratago. Horniketa publikoak, berdeguneak, jarduera ekonomikoak eta garraio publiko hurbila egongo dira bertan.
- Diseinu horren helburua oreka lortzea izango da, udalerrriaren interes orokorraren eta arazo honen barruan eragindako auzokideen interesen artekoa.
- Garapen urbanistikoaren muga Zientoetxe errepidea izango da, eta bertatik itsasertzera dena bere horretan utziko da.
- Hori dena legeak udal birmoldatze lana egiteko ezartzen duen bi urteko prozesuan garatuko da, eta Getxok gidatu, kudeatu eta bukatuko du Getxotik bertatik eta Getxoren interesak kontuan hartuta, Udalak zein eragile sozialek, horrexetarako egokiak diren parte hartzeko eta komunikatzeko formulen bidez.
- Prozesu hori behetik gora garatu behar da, eta ez alderantziz. Planeamenduaren oinarritzko irizpideen definiziotik hasita, ordenamendurako proposamen jakinen geroagoko zehaztapen fase progresibora.